

D. PETERSON

Ebroalde Goieneko muga-hizkuntzak



PETERSON, D., 2009, *Frontera y lengua en el Alto Ebro, siglos VIII-XI*, Logroño: IER.

David Peterson (Cardiff, 1966). Historian lizentziaduna (Oxford) eta Erdi Aroan doktorea (Burgos, 2006).

Peterson-en lanak Burgos eta Errioxari buruzkoak izan dira batez ere, liburu eta artikuluetan emanak.

Eta horren barruan euskararen eta euskaldunen bertako bizia eta eragina gogoan hartu izan ditu.

Euskarari buruzko hainbat gai ukitzen ditu liburuak, hala nola, antzinate berantiarreko euskal lorratzak (66-68 orrialdeak), beroi eta euskal antzekoen arteko muga (55-66 eta 73), nafar konkistaren mugak (180, 221), Oja ibaiko izenen muga (234-237), estratu etnolinguistikoak eta testuinguru historikoak (245), euskal leku-izenen muga marrazteko metodologiaz (410), 1000. urtearen aurreko euskal toponimia (416).

Azpimarratzekoa da “La cronología del vascuence al sur del Ebro” kapitulu luzea (293-367).

Liburu hau, osorik, historiko-soziolinguistikoa dugu, eta Atari honen eremuaz ari da, ikuspuntu ezberdinetatik.

Liburu honek azpitulua darama, gainera: “Las consecuencias e implicaciones de la invasión musulmana”. Ondorio horien artean daude, noski, mende haietan Errioxako alde horretan bizi ziren herrien nondik norakoak.

Denborak aurrera egin ahala, segurtasun hobe irabazita lurraldea birpopulatzeko iparraldetik euskaldunek egindako ahaleginak ere hartzen ditu aintzakotzat, Nafarroa eta Gaztelako Erresumak elkarren lehian ageri zitzaizkigun garaietakoak, alegia.

Euskarari dagokionez, eremu geografiko honi begiratu serio bat Merino Urrutiak eman zion XX. mendean, 1930eko hamarkadatik aurrera, eta orain berrikitan Peterson-ek heldu dio gaiari, bertako muga soziopolitikoen joan-etorria aztertuz.

VIII-XI. mendeak besarkatzen ditu; hortaz, Merino Urrutiak eman zizkigun XIII. mendeko berrien aurrekoa da hemen bildu den albistegia.

Gogoan hartu behar da ikertzaileak “Pasillo” deitu duen Errioxako lurraldea zein den: Burgos, Bureba, Oca Mendiak, Errioxa Goiena: ikus 27. orrialdea.

Diziplinarteko ikerlana da hau: historia politikoa, demografiaren aldakuntzak, esku-aldeko etnia ezberdinak begiratu ditu, adibidez. Kartulario eta iturri idatziak bezala antroponimia eta toponimia ikertu ditu.

Errioxako hizkuntzez orain arte genekizkienei gainera hartu die liburuak, eta orduko albiste berriekin batera garaiko hizkuntz konplexutasuna erakusten digu (ikertzaileak “complejidad lingüística del espacio” deitu duena, alegia), euskal estratuari eta presentzia berriei ere beren lekua aitortuz.

Liburu aberatsa da, eta irakurleari arreta zaindua eskatuko diona.